

## SOFTWARE LIBREAREN ALDEKO BERMEOKO HACK.IN#BADAKIGU ALKARTEAK BERMEOKO UDALARI AURKEZTEN DEUTSON MOZINOA.

Herri edo uri bat gaurkotzeko xedeetariko bat da informazioaren gizartea garatzea da. Podere publikoek gero eta gehiago erabilten dabez holako teknologiak euren eguneroko eginkizunetan eta herritarrek be erabiltea bultzatu beharko leukie alfabetizazio digitalera heldu ahal izateko.

Gaur eguneko testuinguruan hartu beharreko erabagi nagusietariko bat da, honeetarako eginkizunetarako zein software erabiliko dogun. Era orokorrean, kategoria bitan banandu daitegu software hau: edo **software librea** edo jaubetzako softwarea.

Beste alde batetik, kontuan izanda Bermeoko Udalak bizi dauen egoera ekonomikoa eta aurreratzeko neurriak ez dirala norabide bakarrean joan behar, administrazioaren arlo guztietara zuzendu baino, eragin ekonomikoa gitxituko daben ikerketak eginez burutzen diran gastu guztietan.

Espainiar estaduko gobernuak. 2007, 2010 eta 2011 urteetan Informazioaren Gizarteari bultzada bat emotearen aldeko neurriak garatu dauz, eta horren ondorioz, administrazioetan badago interesa arlo honetan aurrezte neurriak ezarteko.

Gizarte eta lan mailearen garapen tresna modura teknologiak barriak bulltzatzeak, ekarriko dau Bermeok besteren beharrez ez izatea informazioaren eta datuen batze arloaren kudeaketan. Modu honetan ez gara egongo besteen menpe eta jaubetzako softwarearen lizentzien urteroko gastua saihestuko dogu.

Horregaitik, Udalak urrats bat emon beharko leuke aurrerantz eta GNU/Linux edo horrelako sistema operatiboren bat ezarri, Windowsen modu berebete funtzionetan dauena baina kostu eta lizentzia gastu barik. Eta bere barruko kodearen programazioan erraztasunak eskaintzen dauz administrazio bakotxaren beharizantetara egokitzeke.

Ubuntu GNU/Linux, Debian GNU/Linux **Software Librean** oinarrituta dago, eta, adibidez, Extremadurako Erkidegoan ezarri zan lehenengoz hezkuntza sistemako 60.000 ordenagailuetan, eta gero Administrazioaren hainbat sailetan, esate baterako, osasun arloan, liburutegietan eta Extremadurako Juntaren beraren administrazio sailetan be. UBUNTU proiektuaren ardatza, haren bizkarrazurrean egokitzen dirana bertsino guztiak, CANONICALek garatzen dau gaur egun, **Software Librearen** Garatzaileen Nazinoarteko Erkidegoa euskarri daukalarik.

Honeekaz neurriakaz bila gabilzana da zabalik dagozan estandarrak bereizten dabezan ezaugarrietaz baliatzea alternatiba guztiz erakargarria definitzeko, kudeaketarako autonomian eta segurtasun teknikoan irabazteko aukerea eskaintzen deuskulako bai herritarroi, administrazio publikoei zein enpresei.

Interesgarria da bereziki **software librearen** garapena Euskal Herriaren moduan estatu izango diran nazinoentzako eta batez be, Bermeo lako herrientzako, ez daukielako industria sektore guztiz garaturik arlo honetan eta neurri honegaz, konpetentzia librea erraztuko litzateke eta enpresa txiki eta ertainen zein kooperatiba eta programazio zibernetikoaren sektoreko erraldoiengandik independenteak diran alkarteen garapena.

### SOFTWARE ASKEAREN ONURAK

- **Eskuratzeko kostu txikia.** Lizentzia doan izateak aurrezte handia dakarrelako.
- **Barrikuntza teknologikoa.** Erabiltzaile bakotxak bere ezagupenak eta esperientzia ekarri leikez eta danen artean, batera, erabagi softwareak noranzko bidea hartu behar dauen bere garapen eta bilakaeran. Aurrerapauso handia benetan, mundu mailako teknologian.
- **Hornitzaileagazko independentzia.** Iturburu kodea eukirik, hornitzaileagazko independentzia bermatzen da. Holan, enpresa edo norbanako bakotxak laguntzen jarraitu daike softwarearen garapenean eta zerbitzuetan.
- **Azterketa publikoa.** Errakuntzak azkarrago eta eraginkorrago zuzentzeko eta produktua hobetzeko erabiltzaileak berak, erabilerean bertan.

- **Softwarearen egokitzapena.** Behar berezi bat burutzeko software personalizadua behar daben enpresa edo industria zehatzentzat erabilpen handiko berezitasuna dogu hau. Gainera, **software libre**agaz egin leike gastuak asko murriztuta.
- **Itzulpena.** Softwarea hizkuntza baten sortu eta merkaturatu arren, libre izateak erraztu egiten dau neurri handian itzultzea eta aurkitzea munduko edozein aldeko erabiltzaileak onura honeetaz baliatzeko.
- **Segurtasuna. Software libre**a Windows baino askoz be seguruagoa da birusen eta hackerren erasoetatik; interfazea eta aplikazioen izenak Windowskoen guztiz antzekoak diran arren, erabilera barriz, "intuizino handikoa da".
- **Aholkularitza.** Informazio eta Komunikazio Teknologiak IKTeKo Aplikazio mailako Zentro Nazionalaren aholkularitza izango dau, administrazioetan moeta honetako aplikazioak ezarteko laguntza, lankidetzeta, finantzazinoa eta aholkularitza eskaitzen dauena, hain zuzen be.

Guzti hau kontuan izanda, hack.in#badakigu alkarteak Udalareko Osoko bilkureari honako eskaintzen deuto:

1. "Bermeo 2.0" Plangintzea egitea. Bertan, lantalde batek 3 hilabetetan txostena egingo leuke Software libreria udal honek erabilitako jaubetzako softwarearen migrazioak eskainiko deutozkan onura ekonomiko, informatiko eta kudeaketarako barrj emonez.
2. Europar Batasunak diru-laguntzak emonda proiektua finantzatu ahal izateko ikerketak egitea, lanaren memoriatik hasita, martxan ezarri arte.
3. Sistema batetik berako migrazioa martxan daukien erakunde autonomo edo espainarrakaz konsultau , baita gurea, hack.in#badakigu lako **software libre**aren alde dagozan irabazteko asmo bako erakundeakaz.

Udalaren beharrianetarako txosten egokia onartuko balitz:

1. Jaubetzako softwarean oinarritutako gaur eguneko udal dokumentuak formatu edegietara egokitzea, orria bera be egokituz (ikurrak, tipografiak,...) baita **software libre**a erabili udalaren web orri guztietan.
2. Euskal Herrian erreferentia izango dan **Software Libre**aren Zentro baten sorrerea bultzatzea, gure udalak garatutako esperientzia oinarri izango dauelarik. Bermeon kokatuko litzateke eta gure herriko langabetuei prestakuntza emotea izango leuke helburu.
3. **Software Libre**a bultzatzea eta instalatzearen alde dagozan Alkarte, Erakunde eta Enpresei euspene emotea.
4. Administrazio honetako informatika sailak egindako software garapenak **software libre**aren GPL Lizenziagaz argitaratuak izateko baimena emotea eta edozeinentzat eskuragai egon daitezala.
5. Beharrezkoak diran ekintzak burutzea eta prestakuntza plan bat ezartea sistema barrira arin baten egokitzeko eta haren etekinik handiena izateko.

**BERMEOKO HACK.IN#BADAKIGU INFORMATIKA ASKE ELKARTEA**  
**BERMEON, 2013ko URTARRILA**